

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Mahastiak ustiatzeko kontratuaren lizitazio iragarkia

Udalbatza honek, 2025eko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, udal-jabetzako bi landa-finkaren errentamenduaren kontratazioa arautuko duen administrazio-klausula zehatzen agiria onartu du, prozedura irekiaren bidez, esleipenerako eta izapidetze arrunterako irizpide batzuekin. Halaber, dagokion lizitaziorako deialdia egin du. Lizitazio horren laburpena iragarki honetan argitaratzen da:

1. Kontratuaren xedea: finka hauek alokatzea:

1. lotea: 5 poligonoko 3 zenbakiko landa finka, "El Encinal" parajea, 10,2149 hektareakoa, eta

2. lotea: 5 poligonoko 215 zenbakiko landa finka, "La Dehesilla" parajea, 1,89 mahasti hektareakoa.

2. Lizitazio tasa: urtean 76,54 euro hektareako; hori baino gehiago eskaini ahal izango da.

3. Kontratuen epea: bost (5) urte, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin.

4. Adjudikazio irizpideak:

a) Prezioa: 80 puntu arte. Lizitazioaren gutxienerako prezioa 76,54 euro izango da hektarea eta urte bakoitzeko (3/5 zenbakiko finka, 10,2149 hektareakoa: 781,85 euro/urte, eta 215/5 zenbakiko finka, 1,89 hektareakoa: 144,66 euro/urte). Hori baino gehiago eskaini ahal izango da.

b) Nekazari gaztea izatea: 5 puntu.

c) Emakumea izatea: 5 puntu.

d) Mahastizaintza-ustiategiaren tamaina: 10 puntura arte (lizitatzailerak 10 hektarea baino gehiagoko eta 21,00 hektarea arteko ustiategiaren titularra bada, 5 puntu; 0,5 eta 10 hektarea artekoa bada, 10 puntu).

5. Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

6. Behin betiko bermea: kontratuaren adjudikazio zenbatekoa bider 10 eginda (kontratuaren eta luzapenaren urteak guztira) ateratzen den kopuruaren ehuneko 5.

7. Espedientea aztertzea: Euskadiko kontratazio plataformako kontratatzailearen profilean, Eltziegoko Udalaren bulegoetan eta udal egoitza elektronikoan [https://elciego.egoitzaelektro-
nikoa.eus/info.0](https://elciego.egoitzaelektro-
nikoa.eus/info.0).

8. Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea: Euskadiko kontratazio plataformako Eltziegoko Udalaren kontratatzailearen profilean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo hamabost (15) egunen barruan.

9. Eskaintzak irekitzea: Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun baliodunean, 13:00etan, udaletxean.

Eltziego, 2025eko abenduaren 19a

Alkatea

JUAN CARLOS URIBE RUEDA